



DNAREN Eskola Kirola gehigarria ♦ Osteguna, 2017ko urtarrilaren 5a. 416 zenbakia



Lautada Waterpolo

LAUTADA WATERPOLO



Siguiendo con atención las explicaciones del entrenador al inicio del campus.



Estos chavales ya apuntan maneras desde el principio.

Waterpolo LAUTADA

Lautadak, Arabako waterpolo klub bakarra, atzo eta asteartean antolatu zuen campusari esker, kirol hau ezagutu zuten 8 eta 16 urte bitarteko 17 neska-mutilak. Klubarekin zerikusirik ez duten partehartzaileentzako jardunaldi hauetan haur mailako jokalarien laguntza ere zegoen. Gainera, izen-emate kopurua mugatu egin zen ekintzaren garapenaren bitartean gehiegizko igerilari saihesteko.

TESTUA AITOR SANCHO/
BARBARA SALCEDO
ARGAZKIAK MANUEL PRIETO

Lautadak, Arabako waterpolo klub bakarra, kirol hau zabaltzeko aktiboki lan egiten du entrenimendua lehiari gailentzen zaion hainbat ekitaldi ospatuz. Garrantzitsuenetarikoa batzuk duela lau urte antolatzen diren zenbait campus dira. "Pasa den irailean etorri ziren 42 kanpoko neska-mutiletik, Lautadako par-

taide bihurtu ziren 18", dio klubeko presidenteordeak, Félix Ruiz.

Atzo eta astearteko ekitaldiak 17 haur harremanetan jarri ditu waterpolorekin Mendizorrotzako igerilekuetan. "Orain arte bakarrik bi campus antolatu ohi genituen, irailean eta Aste Santuko azken egunetan zehar". Gabonetako jardunaldi hauek 16:30tik 18:00ak arte burutu dira eta klubarekin zerikusirik ez duten 8 eta 16 urte bitarteko

LAUTADA WATERPOLO

A punto de lanzar a portería y centrando la atención de todos sus compañeros.



Lo primero, ponerse bien los gorros.



kirolarientzako izan dira. Gainera, partaide kopurua mugatua zegoen "uretan nahaste-borrastekak saihesteko", campusak bilatzen duen guztiz kontrakoa. "Neskamutirik kirol honetara era dibertigarri eta erraz batera hurrera dadila nahi dugu, ekintza hau egiteko klubean sartzea edo aurreko probarik ez dituztelako egin behar. Horrela, waterpoloia gustukoa ote duten ikusiko dute". Ekitaldi hauei esker, Lautadak partida bat botatzeko behar den guztia prestatzen du. "Baldintza berezi batzuk behar direnez gero, bakoitzak bere kabuz partidua jolastea zaila da. Lehenik, taldeko kirola da eta probatzeko prest dauden jokalarik gehiago aurkitu behar dira. Eta gero, atek eta ekipamen-

du egokia jarriz gain, zelaia mugatzeko igerilekuko kale batzuk behar dira". Taldeak adina eta igeriketa mailaren arabera sortzen dira. "Eta uretan ongi moldatzen ez direnak igerileku txikian ate puzgarriekin aritzen dira jolasean". Halaber, klubeko haur mailako jokalariek ekintzako partaideei teknikarekin eta kirol honen arauak ikasten laguntzen diete bizitasuna emanez. "Neurri batean irakasle bihurtzen dira. Haientzat oso sustagarria da eta horregatik, campusetan elkarrekin lan egiteko prest daude beti", baieztatzen du Ruizek.



Peleando por el balón con intensidad y deportividad.